

# Eskola, porrot ala arrakasta?



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA

ANTTON OLARIAGA

**E**skola-instituzioari ez zaio haurren ikasketa benetan axola, ez da hori bere existentziaren arrazoia, ez eta bere jardunaren helburu nagusia ere. Bai, badakit eskolari buruzko iritzi orokorraren kontra egiten dudala, eta bertan lanean ari diren hezitzaileen komunitatea asaldatu ere egin daitekeela hau irakurtzean. Niretzat, ordea, eskolaren emaitzek aditzera ematen dutenaren araberrako baieztapena baizik ez da, eskolak bere buruari ematen dion izenari begiratzearekin bakarrik ere ondoriozta genezakeena, bestalde. “Hezkuntza”(-ren) sistema da. Eta ez, beraz, “ikasketa”rena. Zergatik ote?

Begira. Eskolak erdietsi beharreko lehen helburu gisa aurkeztu izan zaigu beti curriculumean diren edukien ikasketa eta gaitasunen garapena. Xede horretarako instituziorik egokiena delakoan aitortu diogu eskolari zilegitasuna, eta ikasketaren toki enblematikoa kontsideratzen dugulako eman dizkiogu, hain zuzen ere, gure oniritzia eta baimena. Ez du, ordea, betetzen. Eta oso arrazoi xumeagatik, gainera. Ez delako diseinatua izan ikasteko gizakiok behar ditugun baldintzen arabera, eta ez dituelako aintzat hartzen ikas-prozesuen oinarrian dauden printzipioak. Eman izan

zaion ustezko eginkizunean porrot egin du, hainbeste non, bertan haurrek ikasten dutena (eskolan ere ikasten baitute, jakina) gehiago kontsideratu daitekeen eskolara *joanagatik ere* gertatzen den zerbait, *eskolari esker* lorturikoa baino.

Dena den, eta zintzoki hitz eginda, hori ere ez da oso gertakari ez-ohikoa, asko direlako beren benetako funtzioari buruz iruzur egiten duten instituzioak. Egiten duela esaten duen eta benetan egiten duenaren arteko distantzia salbaezina izatea ez da, beraz, eskolari bakarrik leporatu dakiokeen jokabidea. Eskolaren kasuan berezia dena, horrek guregan sortzen duen (edo ez duen) erreakzioa da. Ez ditu eskolarenganako gure konfiantza itsuaren zutabeak kolokan jartzen, ez garamatza kontuak eskatzera, edo bere ustezko helburuen ontasunaz zalantza egitera. Harrigarriki.

Kontua da, ikasketarako baldintza egokiak ez ezartzeko eskolak dituen arrazoiei buruzko galdera, pausatu ere ez dugula egiten. Zeren eta, egia balitz eskolak merezimendu osoz eta harrotasunez nahi duela *ikastoki gorenaren* izena eraman, ez al zaizue iruditzen aski lukeela ikasketa esanguratsuen abiapuntuan dagoen printzipio pedagogiko oinarritzkoena errespetatzea (alegia,

pertsona bakoitzak ikasketa-ibilbide, -eritmo eta -modu propioa duela)? Orduan?

Bada, ez da hori bere lehentasuna. Nahiago luke hori ere gauzatu ahal balu, noski, –bere helburua ez izateak ez duelako esan nahi kontrako helburua duenik–, baina ezin du. Ikasketa bermatzeko bere egunerokotik erauzi beharko lituzkeen praktikak (kalifikazioak, irakaskuntza, azterketak, adibidez), behar beharrezkoak zaizkiolako aitortu ez dezakeen bere helburu gorenaren lortzeko. Eta azken hau, lagunok, negoziatzina da. Supleki eta gordinki.

Eskola, zerbaiten ikasgune izatekotan, sozializazioarena da. Eta horrek, hemen eta orain, haurrei oso balio konkretuen arabera bizitzen irakastearen eginkizuna hobetsi beharra inposatzen dio eskolari. Edozeren gainetik, eta edozer prezioetan, hauxe da eskolari benetan egiten zaion funtsezko galdea: segurtatu dezala helduaroan pairatu beharko duten gizarte, bizimolde, lan-baldintza eta agintearen aurreko tolerantzia nahikoa garatzen dutela haurrek. Horretarako entrenamendu egoki zaiela eskolako bizitza.

Bada, horixe. Horretan duen arrakasta ikusita, zergatik aldatu beharko luke eskolak? ●